



16. ZENBAKIA: KILI-KILIAK

Adi oraingoan! Hilabete honetan, ezertan hasi aurretik, honako hau egin beharko baituzu:

Aldizkariarekin jolasean jarduteko estrategia batzuk kaxa batean gordeta dituzula esan beharko diozu haurrari. Estrategia horiek guk eskainiko dizkizugunak dira, eta berak ere kaxaren jabe izan nahi duen galdetuko diozu haurrari!



Hala bada, kaxari izena jarri beharko diozue. Guk **KAXA MAJIKOA** izena proposatzen dizuegu! Honela, **KAXA MAJIKOAN** hilero gure ekarpenak gorde ahal izango dituzue! Gure ekarpenez gain, zuek nahi duzuen ere sartu dezakezue bertan, baina kontuan izan irakurketa lantzeko baliabide bat izango dela.

Eraiki bada, zuen kaxa eta segi irakurzaletasuna pizten!

1. ALDIZKARIAREN AZALA AZTERTZEN

Hilabete honetako azalean gauza berezi bat egitea gomendatzen dizugu. Ohartuko zinen honezkero zenbaki guztien azalean bunbuilo bat agertzen dela orriaren goialdean. Bada, bunbuilo hori erabiliko duzu oraingoan, haurra aldizkarian murgiltzeko. Egin beharko duzuna honakoa izango da:

Hartu aldizkaria eta bunbuiloa zerbaitekin estali; bertan idatzirik ageri dena ezkutatu beharko duzu.

Jarraian, haurrari aldizkaria eman eta zerbait berezirik antzematen duen galdetu beharko diozu:

- “Zer? Zerbait arraroa antzematean al duzu?”
- “Bai! Gometxarekin (edo beste zerbaitekin) bunbuiloan agertzen zena estali dut! Orain zuk asmatu beharko duzu zer jartzen duen!”

Hala ere, haurrak hitza asmatzen joateko, zuk hizki sopa bat prestatu beharko diozu. Hizki zopa eratzeko orri normal bat erabili dezakezu. Bukatzean, haurrari honako hau esan diezaiokezu:

- “Hizki zopa honetan aurkituko duzu aldizkariaren goialdean idatzirik agertzen dena! Asmatzen baduzu, gometxa kendu eta aldizkaria irakurtzen has gintezke! Zer iruditzen?”

Pistak ere eskaini ahal dizkiozu:

- “Aurkitu behar duzun hitzak barregura ematen du. Zuri egiten badizut, barrezka hasiko zinateke seguru! Zer da?”



Haurrarekin batera egin dezakegu joko guztia eta hitza zein den asmatzen ez badu, beste pistaren bat eman diezaiokezu. Jolas esazue batera!

Behin hitza asmatu eta bunbuilotik gometxa kenduta, haurrari azala behatzeko denbora utziko diogu. Honako hau esanez:

- “Non ditugu oraingoan Pupu eta Lore?”
- “Zerbaitek kili-kili egiten al die? Zerk?”

2. MANTANGORRI:

Hilabete honetako aldizkariak, Berria egunkariaren haur eta gaztetxoentzako gehigarria iragartzen digu.

Gure haurrak duen adinaren arabera, nolabaiteko zailtasunak izan ditzake helarazten den informazioa ulertzeko. Beraz, gure lana izango da haurra irakurketan bideratzea, nondik hasi, jarraitu, amaitu... Honez gain, zenbait galdera ere egin ditzakegu informazioa ulertzen ari den ala ez ikusteko: zer da Mantangorri? Zergatik agertzen dira irrien lagunak bertan? Eta zergatik agertzen da Berria egunkaria?...

3. AURKIBIDEA:

Hilero bezala, aldizkariaren nondik norakoen berri izateko aurkibidea aurkezten zaigu, ez ahaztu berarekin, askotan egiten dugun bezala, ezta?

Gelditu bertan eta galde iezaiozu haurrari:

- *Ea hilabete honetako aldizkariak zer dakarren...*
- *Ezetz asmatu zer agertuko den, aurkibidera begiratu gabe?*
- *Begiratu orain ea ezer berririk agertzen ote den?*
- ...

Aurkibidearen ondoan editorial modukoa ageri da, aldizkariak hilabete honetan biltzen duen gaiaren inguruan, sarrera moduan. Horren inguruan, honakoa proposatzen dizuegu:

- *Haurrak ez badu irakurri nahi, edo ezin badu, zuk irakur iezaiozu, eta bestela utzi berari irakurtzen lasai!*
- *Irakurritakoan hausnarketarako zenbait galdera egin ditzakezu:*
 - o *Zer esaten digu testuak?*
 - o *Uda, beroa, kili-kiliak, irribarre bihurriak... zer esan nahi ote du hitz zerrenda horrek?*
 - o *Sexualitatea? Ba ote du zerikusirik aurretik aipatu ditugun hitzekin?*
- *Aurrekoa landu eta gero animatu aldizkaria arretaz ikusten hastera:*
 - o *Egundoko gogoia sortu zait hilabete honetako ikusteko!*

- *Zuri ere bai?*
- *Biok batera irakurriko dugu? Ala ez?*
- ...

4. LARGABISTA

Largabistaren atalarekin jarraituz, zera gomendatzen dizugu oraingoan:

Zuk irakurri beharko duzu Largabista eta Mari Mototsen istorioa. Hala ere irakurtzerako orduan akatsak egin beharko dituzu. Hartara, haurra adi entzuten ari den eta entzuten ari dena ulertzen ari ote den jakingo dugu.

Irakurritakoa ulertzeak duen garrantziaz jabetzeko, hausnartu aipua honen inguruan: *“Irakurritakoa ulertzen ez duen haurrak, ez du irakurketarekiko gusturik sentituko. Aldiz, irakurtzea gustuko duen haurrak, ulertzen duelako alegia, liburu asko irakurriko ditu eta horrek beregan helburu asko daramatza”*. Aller C-k (1998)

Gogoan izan, irakurketara animatzeak, motibazioa eta irakurtzeko gogoia pizten doazen heinean, ulermena hobetzen lagundu dezakeela. Beraz, ez utzi animatzeari!

Honako hau esan diezaiokezu haurrari:

- *“Zer iruditzen zaizu Largabistaren komikia nik irakurtzen badiñut? Zuk bitartean, komikia ikusi dezakezu, irudiak begiratu eta irakurtzen dizudana entzunez. Hala ere, adi egon beharko duzu, izan ere, baliteke nik akatsen bat edo beste egitea... beraz, hanka sartzen dudanean zuzendu egin beharko didazu. Ados?”*

AMAIERA ALDATZEN ...

Komikia irakurri ondoren, galde iezaiozu haurrari ea komikia ondo ulertu duen. Hala bada, komikiaren amaiera aldatzea proposatu diezaiokezu. Aldaketa hori, idatziz edo ahoz egin dezakezue. Ea zer bururatzen zaion!

5. LANDABISTA



Atal honetan aurreko atalean ageri zitzaigun *Ginko Biloba*-ren inguruko informazioa agertzen zaigu. Informazio hau zuk edo haurrak irakur dezakezue. Hala ere, gogoratu ulertzen ez dituen kontzeptuak edo ideiak ondo argitzeak zer-nolako garrantzia duen.

Zuhaitz honen inguruko informazioa irakurri ondoren, marrazki libreari lekua egitea proposatzen dizuegu. Marrazterakoan, haurrari eskatu nahi duena margotzeko, eta ondoren, nahi badu, azaltzeko zer margotu duen.

6. FILOSOFO TXIKIAK

Atal honetan Filosofo Txikien elkarrizketa antzeztu beharko duzue!

Horretarako, Mixina, Peru, Xerri eta Mokofinen aurpegiak eratu beharko dituzue lehenago: kartoi mehe baten bidez, orri normalarekin, kartoi bidez... nahi duzuen moduan!

Beraz, lehenengo pausua pertsonaien aurpegiak sortzea izango da. Ondoren, bi bazarete, bakoitzak bi pertsonaia aukeratu beharko ditu eta azkenik beraien elkarrizketa antzeztera zuzenduko zarete!

Antzezlana amaitu ondoren, hasierako galderari helduko diozu. Horretarako ondorengo orrian duzun irudia erakutsiko diozu haurrari eta irudia behatuz, honako galderak egingo dizkiozu:

- “Zure ustez, non egoten gara jaio aurretik?”
- “Zer dute gure lagunak besoetan?”
- “Zu ere horrelakoa al zinen txikitik?”
- “Eta nola iritsi zinen nire besoetara?”
- “Non egon zinen zu jaio aurretik? Eta ni?”



Gaia apur bat sartzeko, nahi izanez gero, edo haurrak egiten dituen galderen arabera, azaldu nola heltzen garen sabelera. Azaldu mimoz gurasoek nola maite duten edo maite zuten elkar, eta bera sabelera heltzea nola erabaki zuten, maitasunez...

7. PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Oraingo honetan irakurketa pertsonaiak banatuta egitea proposatzen dugu, batek Porrotxena, beste batek Mari Mototsena eta beste batek narratzailearena.

Gogoratu irakurketa nola gauzatu behar dugun: intonazioa egokia aldian aldiko, gorputz adierazpena ere berdin...

Askotan, irakurketa guk bihurtzen dugu aspergarria, interesik ez diogulako jartzen, eta behartuta egiten ari garen zerbait dela dirudi. Honek haurraren eragin dezake, irakurketarekiko bere jarreraren, irakurketa aspergarria dela sinestearino.

Haurraren lehen urteetan arretaz zaindu beharreko kontua da, beraz, egiten dugunaren ispilu izan nahi baitu askotan haurrak.

8. ELKARTASUNAREN KOLOREAK

Atal honetara iristean honakoa egitea edo honako jarrera hartzea proposatzen dugu:

- *Eneeeee... begiratu zer agertzen den bertan!*
- *Begira irudietan! Zertan ari dira?*
- *Badakizu non dauden?*
- *Irakurriko dugu ea zer dioen?*
- ...

Irakurketa bat gauzatzerakoan garrantzitsua da haurra irakurriko duen horretara motibatzea, zirrara puntu bat sortzea beregan. Zergatik? haurrak horrela gustuko irakurketa bat egingo duelako eta honek irakurketarekiko duen jarrera positiboa izaten lagunduko diolako!

“Zuri garrantzitsua dela iruditzen zaiizu aurretik aipatu dudana?”

9. POSTERRA

Zer nolako irriak egiten ditugun txorakeriak egiten ditugunean ezta?

Hilabete honetako posterrean Porrotx arrain bati haizea botatzen ikus dezakegu eta Marimototx bere kontura barre egiten.

Posterrari begira honako galdera hauek egin ditzakegu:

- *Baina zer gertatzen zaio Porrotxi?*
- *Zergatik ari da Marimototx barre eta barre?*
- ...

Jarraian, hartu dezagun tartetxo bat txorakeriak egiteko haurrarekin batera!

10. PUPU ETA LORE BIZI BIZI BILUZIK

Pupu eta Loreren atalean, KANTUAN arituko zarete! Hala ere, ez duzue kantuan bakarrik jardun beharko, izan ere, abesten duzuen hori ANTZEZTU egin beharko duzue! Eta antzezlan hori imitaziozkoa izango da!

Ikusi dezakegun moduan, laukitxo bakoitzean gauza ezberdin bat egiten dihardute txikitxoak (bufanda eransten, txamarra eranzten ...) Ekintza horiek guztiak kantatuko dituzuen moduan antzeztu ere, egingo dituzue! beti ere, gure bikotea imitatuz!



Haurrak irakurtzen ez badaki zuk egin dezakezu irakurketa eta bion artean egin dezakezue antzezlan! Aldiz, haurrak irakurtzen badaki, bion artean irakurri dezakezue, alegia, zuk laukitxo bat, berak bestea, zuk hurrengoa ... eta horrela guztiak egin arte!

Seguru gaude, izugarri gozatuko duzuela!

11. MARTIN BERTSO

Atal honetan Martin Bertso agertzen zaigu eta hil honetako ipuinean hainbat gaien inguruan hitz egiteko edo hausnartzeko aukera ematen digu: jaiotza, heriotza, bizitzaren gorpila ...

Hau horrela, irakurketa konpartitua gauzatzea gomendatzen dugu, baina haurrak ez badu nahi ez dugu horretara behartuko e?

- *Irakurketa nola gauzatuko duzuen adostu: non irakurriko duten, txandaka irakurri edo ez ...*
- *Irakurketa egin ostean honakoa proposatzen dugu:*
 - *Kontatu iezaiozu zure haurrari nola jaio zen, non egon zen, nola sortu zen...Giro lasai eta goxo batean egitea aproposena izango litzateke!*

12. IRRIEN LAGUNAK KLUBA: IRAKUKETA GIDA GURASOENTZAT ETA IRAKASLEENTZAT

Hilabete honetako aldizkarian gure lanaren berri ematen dute. Hau horrela, aprobetxatu haurrari azaltzeko, irakurketak beraien bizitzetan izan dezaken garrantzia: irakurtzen duten hori ulertzea, maitatzea, goxatzea ... zer nolako onurak ekarriko dizkion bere garapen horretan.

Izan ere gure nahia hori da, haurrak irakurketarekin gozatzea, berau maitatzea, irakurkerari beldurrik ez izatea...!

13. MARIKALAMBRE

Marikalambre eta bere amonaren atala irakurtzeko honako hau proposatzen dizugu hilabete honetan:

- Komikiaren lehen orria begiratzeko denbora utzi haurrari
- Marrazkia begiratzean, galdera batzuk egin ahal dizkiozu:
 - *“Zergatik uste duzu duela horrelako aurpegia Marikalambre?”*
 - *“Nora begira dago Marikalambre?”*
 - *“Eta Marikalambrearen amona, zertan ari da?”*

Lehen orriarekin jolasean aritu ondoren, bion arteko irakurketa egin dezakezue; bakoitzak pertsonaia bat hartu dezake eta irakurri. Hala ere, haurrak oraindik ez badaki irakurtzen, zuk zeuk irakurri zenezake.

Irakurketa honek, berezitasun txiki bat izango du. Irakurketa jolasa ere badela jakin badakigu jada, beraz, jolasean jarraitzea gomendatzen dizugu!

Zertan oinarrituko den gure jolasa? Bada irakurtzen hasi aurretik, letra edo hizki bat aukeratu beharko duzue, bion artean. Behin hizkia aukeraturik,

haurrari azalduko diozu, irakurtzen ari zaretenean eta hizki hori agertzen den bakoitzean txalo egin beharko duzuela!



Adibidez: “Z” hizkia aukeratzen baduzue, beroi agertzen den bakoitzean txalo egingo duzue.

Ekintza hau egin ondoren haurrari galdetu ea ondo ulertu duen irakurritakoa, izan ere, txaloaren jolasarekin aria galtzeko arriskua baitago. Ulertu badu, egin honako galderak haurrari:

- “Zergatik dio amonak azalean bizitzaren mapa duela?”
- “Zer gertatu zaie amonaren titiei? Zergatik?”
- “Zer egiten dio amaieran amonak Marikalambrieri?”

Haurrak ez badu guztiz ondo ulertu istorioa zuk zeuk irakurri iezaiozu. Esan lasai esertzeko zure ondoan eta adi entzuteko! istorio benetan polita da eta!

14. ANE PIRATA ETA PATAKON

Hil honetan ere gure irakurketa, imajinazio eta interpretaziorako gaitasuna martxan jarriko dugu:

- Itzali argiak ipuinean ikus daitekeen bezala.
- Jarri zure interpretazioari kutsu misteriotsua.
- “pospolorik ba al daukagu” zatian piztu zuk ere pospoloa!
- Piztu argiak.
- Eta irudien laguntzarekin jarraitu ipuina irakurtze, zuk dakizun bezala!
Kar, kar, kar ...

Horrelako ekintzak egitea, izugarri gustatzen zaizkie haurrei!

ANJMATU ZAJTEZ !!

15. LAGUN

Atal honetan hauraren eskuetan utziko dugu irakurketa! Zer esan nahi duen horrek? Bada, nahi duen moduan irakurtzeko aukera eskainiko diogula haurrari!: bakarrik, isilik, kantuan, bion artean ...

Estrategia hau erabiltzearen zergatia irakurketak eskatzen duen askatasunean oinarritzen da. Azken batean, gure partetik estrategia ezberdinak eskaini ahal dizkizugu, hala ere, ez dugu inoiz ahaztuko, hauraren irakur zaletze prozesuaren gidari soilak garela, baina norabidea berak zehazten duela!

Irakurtzeko nahi kutsatzea, beste edozein nahi kutsatzea bezala da: hori lortzeko modu bakarra, ezarpenik gabe egiten da, kontaktuaren bidez eta imitazio eta lilurapenaren bidez” (Emili Teixidor)

Beraz, atal hau hausnarketarako erabili ahal dugu ... batzuetan ondo etortzen baita geldi une bat egin eta pentsatzea. Gure haurrarekin lantzen ari garen prozesuaren inguruan hausnartzea ...

Hartu arnasa sakon Eta utzi haurrari irakurketa pertsonala garatzen!

16. **KLABELINE**

Eusko Labelaren publizitaterako ipuina da hilabete honetan agertzen zaigun atal berri bat.

Beharbada gure haurra aspertu da gurekin eta nahiago du bakarrik irakurtzea, horrela ez bada, guk honakoa proposatzen dugu:

- *IRAKURRI AURRETIK (honako galderak luzatu):*
 - *Ea, ea, ea... non daude irudian agertzen zaizkigun pertsonaiak?*
 - *Nortzuk dira?*
 - *Zer egin behar ote dute?*
 - ...
- *IRAKURRI BITARTEAN:*
 - *Zertan ari da amona txinparta?*
 - *Badakizu zertarako den?*
 - *Badakizu nolakoa den begaluzea?*
 - ...

- *IRAKUKETA AMAITZEAN:*
 - o *Erakutsi ordenagailuan, nola arrantzatzen den hegala eta nolakoa den!*

17. HAZI ETA HEZI

Hilabete honetan ere HAZI ETA HEZI aldizkariaren berri ematen digu, bertan landuko diren gaien berri emanez.

Hurrekin irudia konpartitzea interesgarria dela deritzogu, beraz, irudia aurrean dugula, galdera hauek egingo ditugu:

- *Zer agertzen da irudian?*
- *Zergatik ari ote da mutila tripa bati horzeka?*
- *Zer esan nahi ote du horrek?*
- ...

Galdera hauek haurraren imajinazioa landuko dute!